

Esku-hartze soziokomunitarioko zerbitzua buru-nahaste larria duten pertsonentzat.

Prestazio mota: Bermatua.

Baliabide mota: Arreta anbulatorioko zerbitzua.

Baliabidearen xedea: Arreta ingurune irekian ematen duen zerbitzua, gaitasunen habilitaziorako eta akonpainamendu sozialerako, baita integrazio soziokomunitarioa erraztu eta zaintzaileei laguntza emateko ere.

Onuradunak: 18 eta 65 urte bitarte eta buru-nahaste larria duten pertsonak.

Jasotzeko baldintzak:

- Eskatera egin aurreko urtean Nafarroan egiazki eta jarraian bizi izan dela frogatzea.
- %33ko edo hortik goitiko elbarritasuna aitortua izatea.
- Kasuan kasuko Adimen Osasuneko Zentroak emandako egokitasun txostena.

Zerbitzua irekita: Urteko lan egun guztietan, astelehenetik ostiralera.

Zerbitzuaren intentsitatea:

- Intentsitate handiena: hiru ordu astean.
- Intentsitate ertaina: ordu eta erdi astean.
- Intentsitate txikiena: hamabostean behin.

Maiztasun horretan jarduera hauek sartuko dira: ingurune komunitarioan arreta ematea, familiako esku-hartzea, familiako aholkularitza, orientazio eta laguntza, psikoheziketa (eginkizun kognitiboak, autokontrola eta estresari aurre egitea), komunitatean integrazteko laguntza, nork bere burua zaintzea eta eguneroko bizitzako jarduerak, eritasunaren inguruko heziketa, trebetasun sozialak eta diruaren erabilera, laneko gaitasunak eta lan doikuntza.

Emateko epea: Hiru hilabete.

Ordainketan parte hartzea: Ez.

Jarduteko eremua:

Nafarroako Foru Komunitatea.


